

Estás en: [diariovasco.com](#) > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#) > «**Hitz bat ken daitekeenean, kendu**»

KULTURA

# «Hitz bat ken daitekeenean, kendu»

Hainbat idazlek emandako aholkuak bildu dituzte liburu batean

08.10.13 - 00:57 - FELIX IBARGUTXI | DIARIOVASCO.COM |

0 Comentarios | [Twitter](#) 0 [+1](#) 0 [Compartir](#) [Recomendar](#) 0

Oso liburu bitxia plazaratu du Txalaparta etxeak: 'Aiztoa eta arkatza'. Hainbat idazlek –batez ere mundu anglosaxoikoak eta honez gero hilda daudenak– idazketari buruz egindako gogoetak, eta emandako aholkuak, bildu dira argitalpen honetara. Testuen hautaketa eta itzulpena Irati Jimenezek egin du. Irudi asko daude –karikatura modukoak gehienbat–, Antton Olariagak eginak, eta badago Harkaitz Canoren hitzaurre bat ere.

Liburuan paper berezia jokatu du editoreak berak ere, Mikel Sotok. Aspalditik ari zen bera han eta hemen idazleek plazaratutako aholkuak eta gogoetak biltzen, eta material horietaz ere baliatu da Irati Jimenez. «Hasiera batean ematen zuen idazleentzako liburua aterako zela, baina ez, edozeinen-tzat da egokia. Gaur egun, guztiok idazten baitugu, sms-ak besterik ez bada ere», esan zuen editoreak atzoko aurkezpenean.

«Liburuari plus bat eman nahi genion eta Antton Olariagari proposatu genion marrazkiak egitea. Badaude gauza batzuk paperean bakarrik argitara eman daitezkeenak, eta hau da horietako bat», jarraitu zuen Mikel Sotok.

Irati Jimenezek, berriz, esan zuen liburuan agertzen diren idazle gehienak mundu anglosaxoikoak direla: Irlanda, Britainia Handia eta Estatu Batuetakoak. «Baina badago Fran-tziako bat ere, Baudelaire, eta Hegoamerikako batzuk: Monterroso, García Márquez, Borges... Eskatu genien zerbait idazteko bizpahiru euskal idazleri, baina ez genuen ezer lortu. Pudore-kontua izango da».

Stephen King eta Ray Bradburyk idatzitakoak estimatzen ditu gehien Irati Jimenezek. Zientzia fikzioaren, terrorearen eta literatura fantastikoaren alorretan aritu zen gehienbat Bradbury (1920-2012). 'Zen In the Art of Writting' liburuxkan (1990) aholku hau eman zuen, adibidez: «Garaiaren zentzurik gabe, pasiorik gabe, maitsunik gabe idazten baduzu idazle erdia baino ez zara. Zera esan nahi du horrek: hain zaudela arduratuta begi bat merkatuan izaten edo belarri bat abangoardiako taletxoetan, ez zara zu zeu. Ez dakizu nor zaren ere».

Jimenezen iritziz, gehien errepikatu den gomendioa laburtasunarena da. Hortixe liburuaren izenburua eta azaleko irudia, non ikusten baita idazle bat bere onetik aterata eskuan lanabes bikoitza duela: beko partea arkatza, goikoa aizkora.

Laburtasunaz ari garenez, George Orwellek, adibidez, aholku-sorta hau eman zuen 1946ko 'Politics and the English Language' saiakeran: «Sekula ez erabili metaforarik, konparaketarik edo han zein hemen sarriegi idatzita aurkitzen duzun bestelako adierazpide arruntik. Ez erabili hitz luzerik laburrak balio duen lekuan. Hitz bat ken daitekeenean, kendu. Beti».

Liburuko esaldi zorrotzenak, hala ere, azken partekoak izango dira aseguru asko. Idazleek kritikariei buruz esandakoak bildu dira bertara».

Hitzaurrea, esan bezala, Harkaitz Canok idatzi du. «Den-denok garelako 'idazkurle'», dio bertan. Eta, bukatzeko, berriz: «Ezerk salbatzekotan, estiloak salbatuko gaitu».

Bestalde, Antton Olariaga marrazkilariak hau esan zuen atzokoan: «Ikaragarri disfrutatu dut sandwich honetan, Harkaitz eta Iratiren artean».